



ZARAUZKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

Zarauzko Udala

Gizarte Zerbitzuetako Departamentua

**Gizarte ahuldade egoerak prebenitu, saihestu
edo arintzeko diru-laguntza indibidualak
emateko oinarri bereziak**

GIZARTE AHULDADE EGOERAK PREBENITU,SAHIESTU EDO ARINTZEKO DIRU-LAGUNTZA INDIBIDUALAK EMATEKO OINARRI BEREZIEN ALDAKETA

1. Helburua
2. Definizioa, izaera eta ezaugarriak.
3. Onuradunak
4. Onuradun bat baino gehiago batera gertatzea
5. Onuradunen betebeharrak.
6. Zuzkidura eta aurrekontu partida
7. Zenbatekoak finkatzea eta diru-laguntzak emateko irizpideak.
8. Baliabideen maila zehaztea eta baloratzea
9. Hasiera.
10. Eskabideak eta dokumentazioa
11. Aurkeztu beharreko agiriak.
12. Prozedura bideratzea.
13. Eduki ekonomikoko prestazioak eta baliabideak egiaztatzea.
14. Eskabideen ebaluazioa
15. Diru-laguntza ematea
16. Prozedura ebaztea
17. Premiazko prozedura
18. Ebazpena jakinaraztea
19. Errekurtsoak aurkezteko bideak
20. Laguntzak ordaintzea
21. Egindako gastuak justifikatzea.
22. Aldizkako ikuskapenak
23. Diru-laguntzak itzultzea
24. Konfidentzialtasuna
25. Arau-haustea eta administrazioko zigorrak.
26. Eskabideak aurkezteko epea
27. Araubide juridikoa

Azken xedapenak

18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzekoak, hainbat tresna arautzen ditu a) bazterkeria arriskua prebenitzeko, b) bazterkeria pertsonal, sozial edo ekonomikoa arintzeko eta c) herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dituztenei gizarteratzen laguntzeko.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, hain zuzen ere, gizarteratzeko eta bazterkeria prebenitzeko tresnak dira. Gizarte Larrialdietarako laguntzak diru-laguntzak dira, aldi-aldi emango ez direnak, eta hartzaile hauek izango ditu: gizarte-bazterketa egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabiderik gabeko bizikidetzaren unitatean bizi diren pertsonak.

Kontuan izanda Gizarte Larrialdietarako Laguntzen baliabideak urriak direla Zarauzko udalerriko herritarren beste laguntza-eskaera batzuei erantzuteko, Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak diru-partida bat jarri du laguntza haietan jaso gabeko eskaerei irtenbide bat emateko.

Bestalde, Estatuko Buruzagitzaren apirilaren 17ko 38/2003 Legearen bitartez, Diru-laguntzen Lege Orokorra onartu zen (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2003ko azaroaren 18koa, 276 zk.). Legearen helburua zen administrazio publikoek emandako diru-laguntzen araubide juridikoa ezartzea. Administrazio horien artean daude toki-administrazioako erakundeak, 38/2003 Legearen 3.1b) artikuluan jasotakoaren arabera.

Diru-laguntzen Lege Orokorrak 17.2 artikuluan esaten du aurrekontua gauzatzeko oinarrien baitan onartu behar direla tokiko korporazioetako diru-laguntzak arautzeko oinarriak, eta honela: edo diru-laguntzen ordenantza orokor baten bidez, edo diru-laguntza modalitate bakoitzerako ordenantza espezifiko baten bidez. Gainera, lege horrek berak hamalagarren xedapen gehigarrian esaten du, 38/2003 Legean araututako prozedurak egokitu egingo zaizkiola, erregelamendu bidez, tokiko korporazioen antolaketa eta funtzionamendu baldintzei.

Erreferentziazko diru-laguntzei dagokienez, Zarauzko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak oinarri arautzaile batzuk egin ditu, lege hauekin bat etorritz: 38/2003 Legea, Diru-laguntzena; hori garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa); Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea eta abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzekoa.

Kontuan izan dira, baita ere, hainbat gizarte-erakundek, esate baterako, Hirukidek (Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioa) eta Kidetzak (Euskadiko Guraso Bananduen Federazioa) Udal honetan agertu dituzten kezka desberdinak. Eta hala, araudi honetan, diru-sarrerak familia-errenta estandarizatuaren bidez zenbatzeko sistema sartu dugu. Beste egoera batzuk ere sartu ditugu, adibidez, semeen zaintza partekatuetan, seme-alaba horiek udalerrian errolatuta ez egonagatik, udalerrian ikastea.

Aurrean azaldutako arrazoiak kontuan izanda, Zarauzko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren Diru-laguntza Indibidualak arautzeko oinarri hauek idatzi dira, gizarte eta ekonomiaren aldetik ahuldade egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko eta pertsonen garapen osasuntsua bermatzeko. Hauek dira xedapenak:

1. artikulua. Helburua eta diru-laguntzak emateko prozedura

1. Zarauzko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak ematen dituen Diru-laguntza Indibidualak arautzen dituzte oinarri hauek. Diru-laguntza horiek izaera soziala dute, eta egoera ekonomiko eskasean dauden Zarauzko udalerriko pertsonen eta familiei laguntzeko dira. Zarauzko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak kudeatuko ditu, eta Zarauzko Udaleko 2016-2018 Plan Estrategikoan xedatutakoa garatzeko egin dira (plan estrategikoa 2016ko apirilaren 28ko bilkuran onartu zen).

2. Deialdi honi dagokionez, honako hau da laguntza soziala: Udalak ematen duen edozein diru-laguntza, pertsona onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik eskatzen ez duena, eta egoera ekonomiko eskasa eta/edo bazterkeria soziala prebenitzeko edo arintzeko erabiltzen dena.

3. Laguntza horiekin lortu nahi den helburua udal eskumen honetan sartzen da: gizarte-zerbitzuak, gizarte-sustapeneko zerbitzuak eta gizarteratzeko zerbitzuak ematea. Eta ondorengo legeetan xedatutakoarekin bat etorrira egingo da hori: 7/1985 Legearen (Toki araubidearen oinarriak arautzen ditu) 25 artikuluko 2 puntuko e) letra eta apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa da) 17. artikuluko 1 puntuko 13 eta 14 zenbakiak.

4. Azaroaren 17ko 38/2003, Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, 22.1 artikuluan aurreikusitako norgehiagoka araubidez emango dira diru-laguntza hauek.

2. artikulua. Definizioa, izaera eta ezaugarriak

1. Diru-laguntza Indibidualak prestazio ekonomikoak eta diruz-laguntzekoak dira, ez dira aldizkakoak, eta hauek izango dira hartzaileak: gizarte ahuldade egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak (ohikoak nahiz ezohikoak) aurre egiteko behar beste baliabiderik gabeko bizikidetzaren unitateko pertsonak.

2. Diru-laguntza indibidualak izaera finalista dute, beraz, eman diren helburu horretarako baino ezin dira erabili.

3. Subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak dira. Alegia, pertsona onuradunak, edo bere bizikidetzaren unitateko edozein kidek, edo, halakorik balego, etxebizitza edo bizileku berean bizi diren beste pertsona batzuek indarrean dagoen legediaren arabera jasotzen dituzten eduki ekonomikoko baliabide eta prestazio sozialak osatuko dituzte.

4. Diru-laguntza indibidualak besterenezinak dira, eta horrenbestez ezingo dira:

- a) Obligazioen berme gisa eskaini.
- b) Osorik edo partzialki laga.
- c) Konpentsatu edo deskontatu, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko ez bada, oinarri hauetako 22. artikuluan ezarritako moduan.
- d) Atxiki edo enbargatu, Estatuko legedi orokor aplikagarrian aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

5. Diru-laguntzak jaso ditzaketen kontzeptuak.

Diru-laguntza indibidualen bidez honako gastu zehatzak ordaindu ahalko dira:

5. 1. Gastu pertsonalak eta/edo familiarrak:

- a) Ikasteko eskolek eskatzen dituzten eskola-liburuak, baldin eta gastu horiek ez badituzte sistema publikoek estaltzen, eta eskoletatik liburuak berrerabiltzeko bultzatzen duten aukera erabiltzea ezinezkoa bada. Halaber, herriko dendetan

erositako eskolako materiala ere diruz lagundu ahalko da.

- b) Zarauzko kirol instalazio publikoetan edo klubetan kirol jarduerak egiteko kuotak, eta kirol hori egiteko ezinbestekoa den kirol materiala eta arropak, indarrean dagoen ikasturtean derrigorrezko irakaskuntzako mailetan matrikulatuta dauden ikasleentzat.
- c) Eskolako joan-etorri gastuak, ikasketa arautuak edo arautu gabeko homologatuak egiten ari diren ikasleentzat, baldin bere ohiko etxebizitzatik 50 km-ra edo gehiagora badago eskola, eta sistema publikoek gastu horiek ez badituzte estaltzen.
- d) Guraso bakarreko familietako seme-alaba adingabeak zaintzeko pertsonak kontratatzeako gastuak, adingabearekin bizi den aitak, amak edo tutoreak lan edo ikasi egin ahal izateko.

Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa jasotzen den kasuetan, deskontatu egingo da hortik jasotzen den zenbatekoa.

5.2. Ohiko etxebizitza edo bizilekuaren mantentze-gastuak.

- a) Ura eta gasa
- b) Ur-horniduraren eta zaborren udal tasak
- c) Ustekabeen gertatutako alde zurreko zorpetze-gastuak, argiaren edo gasaren kontsumoko fakturak ez ordaintzeagatik sortutakoak.
- d) Alde zurreko zorpetze-gastuak, ur-horniduraren eta zaborren udal tasak eta Ondasun Higiezin hiritar eta landatarraren zerga ez ordaintzeagatik sortutakoak.

Ez da beharrezkoa izango kontzeptu horiek eragindako zorra dagoeneko sortua egotea; diru-laguntza hori eman ahal izango da zorra sortzeko arriskua berehalakoa eta saihestezina bada.

3. artikulua. Onuradunak

Diru-laguntza Indibidual hauen onuradun izango dira honako betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak, oinarri arautzaile hauetan jarritako baldintzetan:

- a) Zarauzko udalerrian erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, eskaera aurkeztu baino gutxienez sei hilabete lehenagotik.

Ez badute gutxienerako epe hori betetzen, ezinbestekoa izango da aurreko 10 urteetatik bostean etenik gabe Zarauzko udalerrian erroldatuta egon eta benetako bizilekua bertan eduki izana.

- b) 18 urte beteta izatea. Gutxienerako adin-muga hori ez dute bete behar gazteago izanda ere gainerako baldintzak betetzen dituztenak, baldin eta ondorengo egoera hauetako batean badaude:

- Ekonomikoki hauetako baten ardura dutenak: beste adingabe batzuk, edo desgaitasuna edo mendekotasun kalifikazioa duten helduak.
 - Gurasorik gabeko umezurtz izatea.
 - Ezkonduta edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez beste pertsona bati loturik egotea, gutxienez sei hilabete lehenagotik.
 - Etxeko tratu txarren biktima izatea.
- c) Oinarri hauetako 2. artikuluan jasotako gastu espezifikoek aurre egiteko behar besteko baliabiderik ez izatea, baldin eta gastuok bere bizikidetzaren unitateko kideei eragiten badiete. Hala, behar besteko baliabiderik ez dela ulertuko da, bere familia-errenta estandarizatuan ezarritako atalasea gainditzen ez duenean. Atalase hori diru-laguntza hauen deialdian zehaztuko da.

Eskatzailea	Koefizientea
Ezkontidea edo izatezko bikotea duen eskatzailea , baldin eta ezkontza-deuseztasun, banantze edo dibortziorik izan ez bada edo harekin izatezko bikote legez bizi bada, eta betiere, eskatzailea emakumeen aurkako bortizkeriaren biktima bada eta egoera hori egiaztatu egin badu.	1,5
Ezkontide edo izatezko bikoterik gabeko eskatzailea	1,3
Genero-indarkeriaren biktima den eskatzailea	1,3
Seme-alaba kopurua , betiere haien gaineko zaintza eta jagoletza badute eta etxebizitza berean bizi badira.	0,3
Minusbaliotasuna duen kide kopurua . Familia-unitateko zenbat kidek daukan agintari eskudunak aitortuta %33 edo gehiagoko minusbaliotasuna, edo mendekotasun egoeraren bat abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa) xedatutakoaren arabera.	0,3

Aurrekoa alde batera utzita, kasu jakin batzuetan, kontuan hartuko dira, baita, eskatzailearen etxebizitza edo bizileku berean bizi diren eta prestazioen onuradun izan daitezkeen gainerako pertsonen etekinak.

d) Ondarea

Bizikidetzaren unitateak duen kapital higigarriaren eta higiezinaren baturatzat hartzen da ondarea. Ondarea ezingo da izan dagokion urteko deialdian jarritakoa baino handiagoa.

Ondare konputuan ez dira sartuko honako ondasun higiezinak:

- Ohiko etxebizitza, garajea eta trastelekua
- Bizikidetzaren unitateko titularrak edo beste kideren batzuek bizikidetzaren unitatearen diru-sarrera izateko helburuarekin beren kontura egiten dituzten jardueretarako erabilitako ondasun higiezinak.
- Karga ekonomikoak dituzten higiezin osoak edo higiezin zatiak. Ondorio horietarako, ez dira karga ekonomikotzat hartuko horien mantentze-lanei dagozkien gastuak

(OHZ, argia, ura eta komunitateko gastuak).

- Etekin ekonomikorik ezin dutela lortu frogatzen duten higiezin osoak edo higiezin zatiak.
- e) Ez dira onuradun izango, 38/2003 Legeak (azaroaren 17koak, Diru-laguntzei buruzkoak) 13 artikuluan zerrendatutako egoeraren batean daudenak, laguntzen sistema publikotik baja emanda daudenak, betebeharrak ez betetzeagatik.

Gizarte ahuldade egoeran dauden pertsonentzako laguntzak direnez, pertsona horiek salbuetsita egongo dira zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen baldintza orokorretik.

4. artikulua. Onuradun bat baino gehiago batera gertatzea

Baldin eta etxebizitza edo bizitoki berean bizikidetzaren unitate bat baino gehiago badaude, haien artean Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeko 9.1.b artikuluan ezarritako loturarik egon gabe (ezkontza nahiz ezkontzaren pareko harreman iraunkorraren gisakoa, adopzioa, laugarren mailara arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailara arteko ezkontza-ahaidetasuna, familia harrerako harreman iraunkorra edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harremana), unitate horiek guztiek izango dute Diru-laguntza Indibidualak lortzea, baldintzak betez gero.

Kasu horietan, ohiko etxebizitza edo bizilekua mantentzeko behar den gastu espezifiko bakoitzeko eman daitekeen gehienezko zenbatekoa zatitu egingo da helbide berean bizi diren bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren artean, eskabide kopurua kontuan izan gabe.

5. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Hauek dira Diru-laguntza Indibidualen onuradunen betebeharrak:

- a) Jasotako prestazioak emandako helbururako bakarrik erabiltzea.
- b) Berez tokatzen zaizkien eskubide zein prestazio ekonomiko guztiak baliatzea, bai eskabidea egin aurretik, bai laguntzak jasotzen dituzten bitartean.
- c) Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari jakinaraztea laguntzak jasotzeko baldintzak ez betetzearekin lotuta ezustean gertatutako edozein gorabehera, hura gertatu eta 15 egun naturaleko epean gehienez ere, eta, bereziki, gai hauen ingurukoak: bizikidetzaren unitatearen osaera, diru-sarrerak eta baliabide ekonomikoen eta ondare-ondasunen aldaketak.
- d) Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuari jakinaraztea onuradunaren ohiko bizilekuari dagokionez gertatutako edozein aldaketa, hura gertatzen denetik kontatzen hasita gehienez 15 eguneko epean.
- e) Okerreko prestazioak edo okerreko kopuruak itzultzea.

- f) Administrazioaren aurrean agertzea, eta harekin lankidetzan aritzea, Zarauzko Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak egin beharreko egiaztatze-jarduerak onartuta eta eskatzen zaion informazioa emanda.
- g) Jasotako diru-laguntza justifikatzea, oinarri arautzaile hauetako 21 artikuluan adierazitako moduan.

6. artikulua. Zuzkidura eta aurrekontu-partida

Diru-laguntza hauen zuzkidura eta aurrekontu-partida Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren urteroko deialdietan ezarriko dira.

7. artikulua. Zenbatekoak finkatzea eta diru-laguntzak emateko irizpideak

1. Deialdian, Diru-laguntza Indibidual modura oro har urtean gehienez emango diren kopuruak ezarriko dira, oinarri arautzaile hauetako 2. artikuluan aurreikusitako gastu zehatz bakoitzerako.

Aukera egongo da 2.5.2 puntuko kontzeptuetan eman beharreko zenbatekoak handitzeko, nahitaezko kasuak direnean eta, betiere, erreferentziako gizarte langileak nahitaezkoa dela baloratzen badu eta txosten sozial baten bidez arrazoitzen badu.

2. Era berean, eskaera eta pertsona edo familia onuradun bakoitzeko gehienezko kopuru hauek ezarri dira:

- Bizikidetz-unitateak, orokorrean: 1.200 €
- Guraso bakarreko familiak: 3.600 €

Deialdian jarritako irizpideen arabera eskatutako zenbatekoa emango da gehienez, eta beti aurrekontu-mugaren arabera.

Eman beharreko diru-laguntza guztien zenbatekoa aurrekontua-baliabideak baino handiagoa izango balitz, honako neurri hau batera aplikatu liteke:

- Murrizketa egitea, horretarako, onuradun izateko betekizun guztiak bete dituzten eskatzaileen artean dauden kopuruak hainbanatuta kontuan hartuta bakoitzak eskatutako laguntza eta familia-errenta estandarizatuaren atalasearekiko hurbiltasuna.

3. Artikulu honetan jarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz ukatuak izan diren berariazko gastuak itxaron-zerrendan geratu ahaliko dira, harik eta horiek ordaintzeko behar besteko kreditua sortu edo libratzen den arte.

8. artikulua. Baliabideen maila zehaztea eta baloratzea.

1. Bizikidetz-unitatearen baliabideak zehazteko, baliabideen multzo osoa zenbatuko da, bai pertsona eskatzailearen etekinak eta ondarea, bai eta bere bizikidetz-unitateko gainerako

kideena ere.

Laguntzak lortzeko baliabideen mugak edo tartearak urteroko deialdian finkatuko dira, kontzeptu hauek kontuan hartuz:

- Errentak
- Oinarri higigarriak
- Ondasun higiezinak

2. Bizikidetzaren unitate batean bizi diren pertsonak abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzekoak, 9.1.b artikuluan jarritako loturak badituzte euren artean (etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean batuta daudenean ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez, adopzioaren bidez, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunaren edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunaren bidez, edo familia-harrerako harreman iraunkor baten edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman baten bidez) eta prestazioaren onuradun izateko aukera badute, eskatzailearen bizikidetzaren unitateak dauzkan diru-sarrerak eta ondasunak bakarrik kontatuko dira errendimendu bezala, baldin eta 2.5.1 artikuluan adierazitako gastuak ordaintzeko eskatzen badira.

2.5.2 artikuluan adierazitako gastuak estaltzeko eskatzen bada laguntza, etxebizitzan bizi diren pertsona guztien diru-sarrera eta ondasun guztiak zenbatuko dira.

3. Ondarea zehazteko eta baloratzeko, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen araudiak adierazitakoa beteko da.

9. artikulua. Hasiara.

1. Diru-laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, **Zarauzko Udaleko organo eskudunak** onartutako deialdiaren bidez. Deialdi hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa.

1. Interesdunek prestazioa eskatu ondoren onartuko dira Diru-laguntza Indibidualak. Eskabidea deialdian ezarritako ereduaren arabera bete beharko da.

2. Eskabidearekin batera, deialdian adierazitako agiriak aurkeztuko dira. Agiri horiek beharrezkoak dira oinarri hauetako 3 artikuluan jarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko.

3. Biztanleen Udal Erroldaren bitartez frogatuko dira bizilekua eta bizikidetzaren, edo, bestela, Bizikidetzaren Txostenaren bidez.

Edonola ere, zaintza partekatuen kasuan, adingabeen errolda-agiriaren ordez, familia liburua eta dagokion gurasoaren errolda-agiria aurkeztu daitezke, baldin eta adingabea Zarautzen ari bada bere ikasketak egiten, eta hala egiaztatzen badu.

4. Prestazio hau jasotzeko behar adina informazio emango du bai Herritarren Arreta Zerbitzuak, bai Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak.

11. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.

1. Eskatzaileak edo baimendutako ordezkariak sinatutako eskabidea. Zarauzko Herritarren Arreta Zerbitzuan emandako ereduaren arabera izango da eskabidea.

2. Bizikidetzta-unitateko kideen nortasun agiriaren fotokopia. Atzerritarren kasuan: Egoitzabaimenaren fotokopia (NIE) eta, horrelakorik izan ezean, pasaportearen fotokopia eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, baldin Foru Ogasunak halakorik ematen badio.

3. Bizikidetzta-unitatean adingaberik baldin bada: Familia Liburuaren fotokopia (idatzitako orrialde guztiena) edo zaintza eta tutoretza egiaztatzen duten agiriena.

4. Ezkontza-egoera frogatzeko agiria (banantzeak, dibortzioak edo ezkontza-deuseztasunak daudenean):

- Banantzeko, dibortziatzeko edo ezkontza deuseztatzeko epaiaren fotokopia.
- Hitzarmen arauemailearen fotokopia.
- Mantenu-pentsioa jasotzen badu: jasotako kopuruaren egiaztagiria.
- Mantenu-pentsioa jasotzen ez badu: auzibideko erreklamazio eguneratua.

5.- Bizikidetzta-unitateko kide guztiek azken zerga-ekitaldian egindako errenta-aitorpenaren fotokopia.

Errenta-aitorpena egitea derrigorrezkoa ez bada:

- Bizikidetzta-unitateko kide guztien azken zerga-ekitaldiko nominak.
- Bizikidetzta-unitateko kide heldu guztien diru-sarrereri buruzko zinpeko aitortpena.

6.- Adostasun-agiri sinatua, Zarauzko Udalarri baimena ematen diona kasu bakoitzean eskumena duen administrazioan hainbat datu frogatu eta egiaztatzeko.

7.- Aurkeztutako eskabidea arrazoitzen duen dokumentazioa:

- Estali beharreko gastuaren aurrekontuak eta/edo fakturak.

8.- Egoera behar bezala baloratzeko, espedientea izapidetzen den gizarte langilearen iritziz ezinbestekoak diren gainerako dokumentuak.

12. artikulua. Prozedura bideratzea.

1. Eskabidea jasotakoan, dagokion gizarte langileak tramitatuko du espedientea.

2. **Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak** frogatuko du ea eskatzaileak eta harekin batera bizikidetzta-unitatea osatzen dutenek Zarauzko helbidea daukaten.

3. **Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak** frogatuko du ea laguntza emateko gainerako baldintzak betetzen diren. Eskabidea ebazteko bere esku dauden eta garrantzitsuak izan daitezkeen agiriak ere erantsiko dizkio eskabideari, halakorik balego.

4. **Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak** egiaztatuko du aurkeztutako eskabideen edukia. Aukera izango du, baita ere, behar dituen datuak eta txostenak eskatzeko, beste erakunde edo entitate publiko eta pribatuei edota eskatzaileari berari. Horrek ez du eraginik izango gerora gaiari buruz egiten diren kontrol eta ikuskapen jardueretan.

Eskatzaileak oinarri arautzaile hauetan jarritako baldintzak betetzen dituela frogatzeko ezinbestekoak diren datuak eta txostenak bakarrik sartzen dira aurreko paragrafoan aipatutakoetan.

5. Eskabidea osatu gabe aurkezten bada edo dokumenturen bat falta bazaio, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean konpon ditzala hutsuneak eta aurkez ditzala behar diren dokumentuak, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak xedatutakoarekin bat etorriz. Ohartaraziko zaio, gainera, hala egiten ez badu eskabidean atzera egin duela ulertuko dela; horretarako, alde aurretik, ebazpena eman beharko da.

6. Eskabideak behar bezala ebaluatu eta ebazteko gizarte langileak beharrezko ikusten duen informazio osagarri guztia eskatu ahalko du,

13. artikulua. Eduki ekonomikoko prestazioak eta baliabideak egiaztatzea.

1. Gizarte langileak egiaztatuko du eskatzaileak edo bere bizikidetzta-unitateko kideek jasotzeko eskubidea duten eduki ekonomikoko laguntza eta prestazio sozialak osorik baliatu diren.

Kasu hauetan, eskubideak osorik baliatu direla iritziko da:

- a) Jurisdikzio sozialarekin lotutako kasuetan, dagokion ebazpena eman ondoren; edo, halakorik ezean, baldin eskabidea, errekerimendua nahiz salaketa forman aurkeztu bada gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenarekin.
- b) Gainerako kasuetan, eskabidea, errekerimendua nahiz salaketa forman aurkeztutakoan, baldin eta ez badu atzera egin edo ukorik egin, gizarte zerbitzuek ontzat emandako aparteko zirkunstantziak izan ezik.

2. Baldin eta eskatzaileak edo bere bizikidetzta-unitateko kideak baliatu ez dituzten eskubide ekonomikoen hartzekodun badira, gizarte langileak eskatuko dio eskatzaileari espedientearen tramitazioa amaitu aurretik bere eskubideak balia ditzala, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera. Ezkontzako bizikidetzta eten egin dela egiaztatzen den kasuetan, mantenu-eskubidea ere sartuko da eskubide ekonomiko horietan.

3. Aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeko, Departamentuak euren eskubideei buruzko informazioa emango die interesdunei, baita haiek baliatzeko egin beharreko tramiteei buruzkoa ere.

4. Eskatzaileak 2 paragrafoan adierazitako betebeharra betetzen ez badu, eskabideari uko egi diola ulertuko da; baina aurretik, ebazteko eskumena duen organoak txostena egingo du, eta han adieraziko dira zein diren gaiarekin lotutako zirkunstantziak, gertakariak eta arau aplikagarriak.

5. Aurreko paragrafoan adierazitakoa alde batera utzita, 2. paragrafoan ezarritako obligaziotik salbuetsita geratuko dira eskatzaile hauek: gizarte zerbitzuen iritziz edo epailearen ebazpen baten ondorioz ikusten denean eskatzailearen osotasuna eta segurtasun pertsonala arriskuan jartzeko aparteko zirkunstantziak daudela eta egokia ikusten denean bere eskubideak baliatzeko prozesua atzeratzea.

14. artikulua. Eskabideen ebaluazioa.

1. Eskabideak aurreko artikuluetan adierazitako moduan egiaztatu ondoren, gizarte langileak txostena egingo du, espediente osoa jaso eta gehienez hiru hilabeteko epean.

2. Espediente osoa arduradun politikoari helaraziko zaio. Dagokion gizarte langileak, prozeduraren instruktoreak, espedientea ikusirik, ebazpen-proposamena egingo dio arduradun politikoari dekretu baten bitartez.

15. artikulua. Diru-laguntza ematea

Diru-laguntza indibidualak eman aurretik, nolana ere, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak egiaztatu egin beharko du premia-egoera benetakoa dela eta Udalaren aurrekontuetan helburu horretarako kreditua badagoela.

16. artikulua. Prozeduraren ebazpena

1. **Zarauzko Udaleko organo eskudunak** erabakiko du zer diru-laguntza ematen zaion eskatzaile bakoitzari, zer eskabideri egin zaien uko, eta zer eskabide baztertu diren eta zein diren bazterketaren arrazoiak.

Diru-laguntza emateko ebazpenak diru-laguntza gastatzeko konpromisoa dakar.

2. Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, eta interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Ebazpena onartzeko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez ere, deialdia argitaratzen denetik kontatzen hasita, baldin eta deialdiak berak ez baditu bere ondorioak geroragorako uzten.

Ebazpena onartzeko eta jakinarazteko gehienezko epea amaitu eta oraindik ez bada berariazko ebazpenik eman, eskabidea ezetsizat joko da, administrazioaren isiltasunaren bidez, Administrazioak ebazteko duen legezko obligazioari utzi gabe; eta hori Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Eskabideak administrazioaren isiltasunaren bidez ezestearen ondorio bakarra da interesdunek dagozkien errekurtsioak aurkeztu ahal izatea.

4. Diru-laguntzen helburua kontuan hartuta, ez da beharrezkoa izango diru-laguntza hauen onuradunen datu pertsonalak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

17. artikulua. Premiazko prozedura

1. Gizarte langilearen txostenaren arabera, berehala konpondu beharreko behar baterako denean laguntza-eskabidea (esate baterako, energia hornidura moztea), lehentasuna emango zaio administrazio-espeditentari, eta berehala tramitatu ahal izango da.

2. Eskatzaileak oinarri hauen 3. artikuluko d) atalean adierazitako baldintza betetzen ez badu ere, laguntza tramitatu ahalko da, baldin eskatzaileak zirkunstantzia batzuegatik ezin dituenen bere baliabideak benetan erabili.

Kasu horretan laguntza eman ahalko da, baina onuradunak laguntza hori itzuli egin beharko du, laguntzaren xede diren beharrak bere kabuz ordaintzeko ezintasuna dakarten zirkunstantziak bukatzen direnean.

18. artikulua. Ebazpena jakinaraztea

Ebazpena zuzenean jakinaraziko zaio interesdunari **Zarauzko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan**, eskabidea egiten den egunetik kontatzen hasi eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Epea beste hilabete bat luza daiteke, ebazpen-dekretuaren datatik aurrera, ebazpen-dekretu hori data baino beranduagokoa bada. Interesduna epe horretan agertzen ez bada, ebazpena jakinarazitzat hartuko da.

Hala egiteko eskatuz gero, aukera egongo da jakinarazpena elektronikoki egiteko, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak aurreikusitakoarekin bat etorrita.

19. artikulua. Errekurtsioak aurkezteko bideak

Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duenez gero, horren aurka aukerako berraztertze-errekurtsioa jarri ahal izango da, ebazpena eman duen organoaren aurrean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

20. artikulua. Laguntzak ordaintzea

1. Diru-laguntza indibidualak emateko ebazpenean adieraziko da nola emango diren diru-laguntzak.

2. Aldez aurreko ordainketa gisa egin ahalko da prestazioen ordainketa, justifikazioa egin aurretik eta inolako bermerik exijitu gabe.

3. Onuradunak ez baditu prestazioak berez diren xederako erabiltzen edo horren zantzu argiak badaude, Udalak erabaki ahalko du prestazioak beste pertsona bati ematea, gizarte langileak txostena egin ondoren. Prestazioaren ordainketak ez du esan nahi, inondik ere, prestazioaren titulartasuna aldatu dela.

21. artikulua. Egindako gastuak justifikatzea.

Diru laguntza indibidualen eskatzaileak/onuradunak egindako gastuen fakturak naiz frogagiriak aurkeztu beharko dituzte diru laguntzen deialdian ezarritakoaren arabera.

22. artikulua. Aldizkako ikuskapenak

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak nahi beste ikuskapen egin ditzake laguntza ematea eragin zuten arrazoiak bere horretan dirauten egiaztatzeko. Horretarako, laguntzen onuradunei administraziora agertu eta elkarlanean aritzeko eska diezaieke.

23. artikulua. Diru-laguntzak itzultzea

1. Onuradunek jasotako zenbatekoak itzuli egin behar dituzte, baldin eta 38/2003 Legeak, Diru-laguntzei buruzkoak, jarritako arrazoietako bat gertatzen bada. Itzuli egingo da, baita ere, diru-laguntza ordaintzen zaienetik itzuli egin behar dutela erabakitzen den arte sortzen diren berandutze-interesak.

2. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean administrazio-prozedurei buruz ezarritako xedapen orokorrek arautuko dute. Gainera Diru-laguntzen Lege Orokorreko 42. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da. Prozeduran, dena den, 10 egun balioduneko entzunaldi tramitea emango zaio interesdunari.

3. Organo eskudunak erabakiko du jasotako kopuruaren zenbateko osoa edo soilik zati bat itzuli behar den.

4. Diru-laguntza itzultzeko betebeharra dakarren ebazpenak arrazoitua izan behar du, eta berariaz adierazi behar du zergatik itzuli behar den, zenbat itzuli behar den eta zein den diru-sarrera egiteko borondatezko epea. Gainera, ohartaraziko da emandako epean itzultzen ez bada, premiamendu bidera joko dela.

5. Diru-laguntza itzultzeko betebeharrak gain, beste zigor batzuk ere ezar daitezke.

6. Aurreko paragrafoetako ondorioetarako, Udalak aukera izango du onuradunaren bizikidetzaren unitateko edozein kideri egokitutako Diru-laguntza Indibidualen prestazioen konpentsazioa edo deskontua ofizioz egiteko.

7. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean, gaizki emandako prestazioak itzuli eta konpentsatzetik bildutako kopuruak Diru-laguntza Indibidualen prestazioei aurre egiteko erabiliko dira.

24. artikulua. Konfidentziasuna.

Espedienteen tramitazioan lortutako datuen konfidentziasuna bermatuko du Udalak, honako honek adierazitako baldintzen arabera: [2016/679 Erregelamendua \(EB\), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak](#).

Hala eta guztiz ere, ulertu behar da administrazio publikoek elkarrekin lan egin behar dutela, herritarrei arretarik onena eskaintzeko. Beharrezkoa da, beraz, esparru horretan komunikazio bideak jartzea, informazio-sistema arina eta uneoro eguneratua edukitzeko eta administrazio publikoen artean informazio mota jakin batzuk partekatzeko; eta hori dagokion pertsonaren adostasunarekin eta ustez beharrezkoak diren segurtasun neurri guztiak aplikatuta.

25. artikulua. Arau-haustek eta administraziozko zigorrak.

Arau-hausteen eta zigorren araubidea hemen adierazitakoa izango da: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa (IV. Titulua) eta hori garatzen duen Erregelamenduaren IV Titulua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartutakoa).

Eta prozedura, berriz, honen arabera tramitatuko da: Administrazio Prozedura Erkidearen Legea eta 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.

Zigorren bat jartzeak ez du esan nahi, inola ere, gaizki jasotako prestazioak itzultzeko obligazioa bete behar ez denik.

26. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea.

Urteroko deialdian ezarriko da eskaerak aurkezteko epea.

Prozedura batean ebatzita dauden eskaerak ezin dira hurrengorako aurkeztu.

Urtean zehar Diru-laguntza Indibidualak eskatzen badira eta itxiera egiteko unean aurrekonturik ez egoteagatik erantzun gabe geratzen badira, ezetsitako eskaeretan bihurtzen dira automatikoki. Dena dela, itxaron-zerrendan geratuko dira, horiei erantzuteko behar besteko kreditu sortu edo askatuko balitz ere.

27. artikulua. Araubide juridikoa

Diru-laguntzen oinarrietan eta ondorengo arauetan xedatutakoak arautuko dituzte oinarri hauen xede diren diru-laguntzak:

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.
- Zarauzko Udalaren Diru-laguntzei buruzko Plan Estrategikoa 2016-2018 (GAO 2.zk., 2016ko maiatzaren 17koa).
- Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (GAO 140. zk.,2008ko uztailaren 22koa).
- Legeria sektoriala Gizarte Zerbitzuen alorrean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen.- Babes eta zaintza edo tutoretza egoerak.

Oinarri hauen ondorioetarako, seme-alaben motako harremanen pareko izango dira babes eta zaintzak edo tutoretzak.

Bigarrena.- Alkateak ahalmena izango du oinarri hauek ondo interpretatzeko, garatzeko eta betearazteko behar adina neurri hartzeko.

DATUAK

Hasierako onespina	2016ko uztailaren 28an
GAOn iragarkia:	2016ko abuztuaren 5ean (149 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2016ko irailaren 12an
Behin betiko onespina	
GAOn testua:	2016ko irailaren 28an (185 zk.)
Indarrean:	2016ko urriaren 21ean

ALDAKETA 2017

Hasierako onespina	2017ko apirilaren 27an
GAOn iragarkia:	2017ko maiatzaren 10ean (88 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2017ko ekainarenb 21ean
Behin betiko onespina	
GAOn testua:	2017ko abuztuaren 17an (156 zk.)
Indarrean:	2017ko irailaren 8an

ALDAKETA 2018

Hasierako onespina	2018ko azaroaren 29an
GAOn iragarkia:	2018ko abenduaren 17an (241 zk.)
Alegazioak aurkezteko epea:	2019ko otsailaren 1ean
Behin betiko onespina	
GAOn testua:	2019ko otsailaren 19an (34 zk.)
Indarrean:	2019ko martxoaren 13an